Laboral Kutxa Selek Plus, I.F.

# 2019ko Urteko Txostena

Sozietate Gestorea:
Caja Laboral Gestión S.G.I.I.C., S.A.
Entitate Gordailuzaina:
Caja Laboral Popular
Coop. de Crédito

LABORAL kutxa

# Laboral Kutxa
# Selek Plus, I.F.

## 2019ko eta 2018ko
## urteko txostena

# Informe de auditoría de cuentas anuales emitido por un auditor independiente

A los partícipes de Laboral Kutxa Selek Plus, Fondo de Inversión por encargo de los administradores de Caja Laboral Gestión, Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva, S.A. (Sociedad Unipersonal) (la Sociedad gestora):

## Opinión

Hemos auditado las cuentas anuales de Laboral Kutxa Selek Plus, Fondo de Inversión (el Fondo), que comprenden el balance a 31 de diciembre de 2019, la cuenta de pérdidas y ganancias, el estado de cambios en el patrimonio neto y la memoria correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera del Fondo a 31 de diciembre de 2019, así como de sus resultados correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la Nota 2 de la memoria) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

## Fundamento de la opinión

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España. Nuestras responsabilidades de acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la sección *Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales* de nuestro informe.

Somos independientes del Fondo de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia, que son aplicables a nuestra auditoría de las cuentas anuales en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de la auditoría de cuentas ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión.

## Aspectos más relevantes de la auditoría

Los aspectos más relevantes de la auditoría son aquellos que, según nuestro juicio profesional, han sido considerados como los riesgos de incorrección material más significativos en nuestra auditoría de las cuentas anuales del periodo actual. Estos riesgos han sido tratados en el contexto de nuestra auditoría de las cuentas anuales en su conjunto, y en la formación de nuestra opinión sobre éstas, y no expresamos una opinión por separado sobre esos riesgos.

*PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L., Pº de Colón, 2, 20002 San Sebastián, España*
*Tel.: +34 943 323 900 / +34 902 021 111, Fax: +34 943 288 177, www.pwc.es*



R. M. Madrid, hoja 87.250-1, folio 75, tomo 9.267, libro 8.054, sección 3ª
Inscrita en el R.O.A.C. con el número S0242 - CIF: B-79 031290

| Aspectos más relevantes de la auditoría | Modo en el que se han tratado en la auditoría |
|---|---|
| Valoración de la cartera | |
| De conformidad con la legislación vigente, el objeto social de las Instituciones de Inversión Colectiva es la captación de fondos, bienes o derechos del público para gestionarlos e invertirlos en bienes, derechos, valores u otros instrumentos, financieros o no, siempre que el rendimiento del inversor se establezca en función de los resultados colectivos.<br><br>De acuerdo con la actividad anteriormente descrita, el Patrimonio Neto de Laboral Kutxa Selek Plus, Fondo de Inversión está fundamentalmente invertido en instrumentos financieros. La política contable aplicable a la cartera del Fondo se encuentra descrita en la Nota 3, Resumen de los principios contables y normas de valoración más significativos y en la Nota 6 de la memoria de las cuentas anuales del Fondo se detalla la Cartera de inversiones financieras al 31 de diciembre de 2019.<br><br>Identificamos esta área como uno de los aspectos más relevantes a considerar en la auditoría del Fondo por la repercusión que la valoración de la cartera tiene en el cálculo diario de su Patrimonio Neto y, por tanto, del valor liquidativo del mismo. | El Fondo mantiene un reglamento de gestión con Caja Laboral Gestión, Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva, S.A. (Sociedad Unipersonal) como Sociedad gestora. Hemos obtenido un entendimiento de los procedimientos y criterios empleados por la Sociedad gestora en la determinación del valor razonable de los instrumentos financieros del Fondo, al objeto de considerar que los anteriores son adecuados y se aplican de manera consistente para todos los activos en cartera del Fondo.<br><br>Adicionalmente, hemos realizado procedimientos sobre la cartera de inversiones financieras del Fondo, entre los que destacan los siguientes:<br><br>*Obtención de la confirmación de la Entidad depositaria de los títulos en cartera*<br><br>Solicitud a la Entidad depositaria, en el desarrollo de sus funciones de vigilancia, supervisión, custodia y administración para el Fondo, la confirmación relativa a la existencia de los títulos recogidos en la cartera del Fondo al 31 de diciembre de 2019.<br><br>*Valoración de la cartera de inversiones*<br><br>Comprobación de la valoración de los activos que se encuentran registrados a valor razonable de la cartera del Fondo, mediante la re-ejecución de los cálculos realizados por la Sociedad gestora, contrastando, en su caso, con valores de mercado a la fecha de análisis.<br><br>Del resultado de los procedimientos descritos, las metodologías utilizadas por la Sociedad gestora para determinar el valor razonable de la cartera del Fondo son adecuadas y cualquier diferencia obtenida, como resultado de nuestros procedimientos respecto a los cálculos de la Sociedad gestora, se ha mantenido en un rango razonable en relación al importe incluido en las cuentas anuales adjuntas. |

## Otra información: Informe de gestión

La otra información comprende exclusivamente el informe de gestión del ejercicio 2019, cuya formulación es responsabilidad de los administradores de la Sociedad gestora y no forma parte integrante de las cuentas anuales.

Nuestra opinión de auditoría sobre las cuentas anuales no cubre el informe de gestión. Nuestra responsabilidad sobre el informe de gestión, de conformidad con lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas, consiste en evaluar e informar sobre la concordancia del informe de gestión con las cuentas anuales, a partir del conocimiento de la entidad obtenido en la realización de la auditoría de las citadas cuentas y sin incluir información distinta de la obtenida como evidencia durante la misma. Asimismo, nuestra responsabilidad consiste en evaluar e informar de si el contenido y presentación del informe de gestión son conformes a la normativa que resulta de aplicación. Si, basándonos en el trabajo que hemos realizado, concluimos que existen incorrecciones materiales, estamos obligados a informar de ello.

Sobre la base del trabajo realizado, según lo descrito en el párrafo anterior, la información que contiene el informe de gestión concuerda con la de las cuentas anuales del ejercicio 2019 y su contenido y presentación son conformes a la normativa que resulta de aplicación.

## Responsabilidad de los administradores en relación con las cuentas anuales

Los administradores de la Sociedad gestora son responsables de formular las cuentas anuales adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados del Fondo, de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales libres de incorrección material, debida a fraude o error.

En la preparación de las cuentas anuales, los administradores de la Sociedad gestora son responsables de la valoración de la capacidad del Fondo para continuar como empresa en funcionamiento, revelando, según corresponda, las cuestiones relacionadas con empresa en funcionamiento y utilizando el principio contable de empresa en funcionamiento excepto si los citados administradores tienen intención de liquidar el Fondo o de cesar sus operaciones, o bien no exista otra alternativa realista.

## Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales

Nuestros objetivos son obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales en su conjunto están libres de incorrección material, debida a fraude o error, y emitir un informe de auditoría que contiene nuestra opinión.

Seguridad razonable es un alto grado de seguridad, pero no garantiza que una auditoría realizada de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España siempre detecte una incorrección material cuando existe. Las incorrecciones pueden deberse a fraude o error y se consideran materiales si, individualmente o de forma agregada, puede preverse razonablemente que influyan en las decisiones económicas que los usuarios toman basándose en las cuentas anuales.

Como parte de una auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España, aplicamos nuestro juicio profesional y mantenemos una actitud de escepticismo profesional durante toda la auditoría. También:

- Identificamos y valoramos los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales, debida a fraude o error, diseñamos y aplicamos procedimientos de auditoría para responder a dichos riesgos y obtenemos evidencia de auditoría suficiente y adecuada para proporcionar una base para nuestra opinión. El riesgo de no detectar una incorrección material debida a fraude es más elevado que en el caso de una incorrección material debida a error, ya que el fraude puede implicar colusión, falsificación, omisiones deliberadas, manifestaciones intencionadamente erróneas, o la elusión del control interno.

- Obtenemos conocimiento del control interno relevante para la auditoría con el fin de diseñar procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad.

- Evaluamos si las políticas contables aplicadas son adecuadas y la razonabilidad de las estimaciones contables y la correspondiente información revelada por los administradores de la Sociedad gestora.

- Concluimos sobre si es adecuada la utilización, por los administradores de la Sociedad gestora, del principio contable de empresa en funcionamiento y, basándonos en la evidencia de auditoría obtenida, concluimos sobre si existe o no una incertidumbre material relacionada con hechos o con condiciones que pueden generar dudas significativas sobre la capacidad del Fondo para continuar como empresa en funcionamiento. Si concluimos que existe una incertidumbre material, se requiere que llamemos la atención en nuestro informe de auditoría sobre la correspondiente información revelada en las cuentas anuales o, si dichas revelaciones no son adecuadas, que expresemos una opinión modificada. Nuestras conclusiones se basan en la evidencia de auditoría obtenida hasta la fecha de nuestro informe de auditoría. Sin embargo, los hechos o condiciones futuros pueden ser la causa de que el Fondo deje de ser una empresa en funcionamiento.

- Evaluamos la presentación global, la estructura y el contenido de las cuentas anuales, incluida la información revelada, y si las cuentas anuales representan las transacciones y hechos subyacentes de un modo que logran expresar la imagen fiel.

Nos comunicamos con los administradores de la Sociedad gestora en relación con, entre otras cuestiones, el alcance y el momento de realización de la auditoría planificados y los hallazgos significativos de la auditoría, así como cualquier deficiencia significativa del control interno que identificamos en el transcurso de la auditoría.

Entre los riesgos significativos que han sido objeto de comunicación a los administradores de la Sociedad gestora, determinamos los que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales del periodo actual y que son, en consecuencia, los riesgos considerados más significativos.

Describimos esos riesgos en nuestro informe de auditoría salvo que las disposiciones legales o reglamentarias prohíban revelar públicamente la cuestión.

PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L. (S0242)

José Antonio Simón Maestro (15886)

30 de abril de 2020

*Este informe se corresponde con el sello distintivo nº 03/20/02488 emitido por el Instituto de Censores Jurados de Cuentas de España*

## KUDEAKETA-TXOSTENA, 2019KO EKITALDIKOA

Urtea ixterakoan, datu hauek genituen: 2 urterako Altxorraren bonuak −% 0,38koak ziren, 5 urterako bonuak −% 0,07koak, 10 urterako bonuak % 0,468koak eta Alemaniarekiko 10 urterako diferentziala % 0,653koa. Burtsetan, irabaziak izan dira oro har. Iparramerikako burtsek gora egin dute: % 28,88 S&P 500 indizeak eta % 32,23 Nasdaq indizeak. Europako burtsetan, berriz, Eurostoxx 50ak % 24,78ko igoera izan du.

Munduko ekonomia % 3 hazi da 2019an, hazkunderik txikiena 2009az geroztik, eta aurreko urtean baino 6 hamarren gutxiago. Garatzeko bidean dauden ekonomiek zein ekonomia aurreratuek apaldu egin dute hazkunde-tasa. Halere, azken horiek hein handiagoan hoztu dira, aurreko urteko % 2,3ko tasatik % 1,7 inguruko tasara jaitsi badira 2019an. Zalantzarik gabe, ezegonkortasun politikoa eragozpena izan da bai merkataritza globalerako bai enpresen inbertsiorako, eta kanpoaldearekiko esposizio handiagoa duten ekonomiak kaltetu ditu gehien. Hori are agerikoagoa izan da urteko bigarren erdian. Ondorioz, Europako ekonomia nagusiak hazkunde hutsala izan du (% 0,1ekoa urteko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan). Dezelerazio globala ikusita, banku zentralek esku hartzea erabaki dute. Eta, berriz ere, Erreserba Federala izan da aktiboena. Interbentzio-tasa jaitsi egin du (% 2,50etik % 1,75era), batez ere Txinarekiko eta Europarekiko gerra komertzialaren ondorio negatiboak arintzeko. Jaitsiera horrek oso eragin positiboa izan du finantza-merkatuetan, haiek izan baitira onurarik handiena atera dutenak. Hazkunde indartsurik ezean, inflazio globalek ere apaldu egin dute igoera. Hala, ekonomia aurreratuak oso tasa txikietara itzuli dira (% 2tik behera AEBn eta % 1 ingurura eurogunean), eta EZBk nahikoa marjina izan du, zorra erosteko programa berreskuratzeko.

Banku zentralen jarduerak argi eta garbi eragozten du tasa monetarioen igoera. Hala, minimoetan jarraitzen dute eurogunean, eta, herrialde gehienetan, 2 urterako tasa negatiboetan. Estatu Batuetan, interbentzio-tasaren 3 jaitsierek % 1,50era eraman dute 2 urterako tasa, hots, 2017ko maila berera.

Epe ertain eta luzerako zorrak bilakaera positiboa izan du eurogunean. Alemaniako tasek zertxobait gora egin badute ere lehen seihilekoko minimoetatik, eta Frantziakoak eta Espainiakoak gorabeherarik gabe jarraitu badute ere, gainerako ekonomietan tasa-jaitsierak ikusi ditugu, batik bat tarterik luzeenetan (Italiako 10 urterako BETa oinarrizko 70 puntu jaitsi da bigarren seihilekoan).

Kreditu-kalitaterik handieneko eurotako zor korporatiboak irabaziak izan ditu hiruhilekoan. Egonkortasunari (tasen kurba subiranoen mugimendu arinari) mesede egin dio, gainera, horien aurreko diferentziala murriztu izanak.

### HORNITZAILEEI EGINDAKO ORDAINKETA-GERORATZEEI BURUZKO INFORMAZIOA

2019ko abenduaren 31n, Fondoak ez du legeak ezarritako epea gainditzen duen geroratzedun saldorik ordaintzeko.

## I+G-KO GASTUAK ETA INGURUMENA

Ekitaldian zehar ez da jarduerarik egon ikerketaren eta garapenaren alorretan. 2019ko ekitaldiko urteko kontuei dagokien Fondoaren kontabilitatean ez dago ingurumen-informazioari buruzko aparteko dokumentuan sartu beharreko kontu-sailik.

## NORBERAREN AKZIOAK

Fondoari ez dagokio atal hau.

## ITXIERAREN ONDORENGO EGITATEAK

2019ko abenduaz geroztik, COVID-19a, koronabirusaren andui berria, hedatu da Txinatik beste herrialde batzuetara (Espainia tartean dela). Gertaera horrek mundu osoko ekonomiari eragin dio, eta, ondorioz, baita Fondoaren eragiketei eta finantza-emaitzei ere. Fidagarritasunez aurresan ezin diren etorkizuneko esku-hartzeen mende dago koronabirusak gure emaitzetan izango duen eragina, besteak beste, gaixotasuna kontrolatzeko eta tratatzeko ekintzen eta ukitu dituen herrialdeetako ekonomietako inpaktua arintzearren egingo diren jardueren mende.

Aurreko paragrafoan deskribatutakoaz gain, ekitaldia itxi ostean ez da gertatu Fondoaren urteko kontu hauetan eragin nabarmena izan dezakeen inolako gertaerarik.

## Laboral Kutxa
## Selek Plus, I.F.

### Balantzea, 2019ko abenduaren 31koa
### (Eurotan adierazita)

| AKTIBOA | 2019 | 2018 (*) |
|---|---|---|
| **Aktibo ez-korrontea** | **-** | **-** |
| Ibilgetu ukiezina | - | - |
| Ibilgetu materiala | - | - |
| Erabilera propioko ondasun higiezinak | - | - |
| Altzariak eta lanabesak | - | - |
| Geroratutako zergagatiko aktiboak | - | - |
| **Aktibo korrontea** | **251 053 445,69** | **221 358 363,46** |
| Zordunak | 1 913 304,48 | 6 146 935,72 |
| Finantza-inbertsioen zorroa | 245 859 401,88 | 206 238 055,88 |
| Barruko zorroa | 38 838 659,88 | 18 500 000,00 |
| Zorra adierazten duten baloreak | 38 838 659,88 | 18 500 000,00 |
| Ondare-tresnak | - | - |
| Inbertsio Kolektiboko Erakundeak | - | - |
| Kreditu-erakundeetako gordailuak | - | - |
| Deribatuak | - | - |
| Beste batzuk | - | - |
| Kanpoko zorroa | 206 953 018,02 | 187 622 960,54 |
| Zorra adierazten duten baloreak | 5 058 296,64 | 9 938 039,97 |
| Ondare-tresnak | - | - |
| Inbertsio Kolektiboko Erakundeak | 201 894 721,38 | 177 684 920,57 |
| Kreditu-erakundeetako gordailuak | - | - |
| Deribatuak | - | - |
| Beste batzuk | - | - |
| Inbertsio-zorroko interesak | 67 723,98 | 115 095,34 |
| Inbertsio berankor, zalantzazko edo auzipekoak | - | - |
| Periodifikatzeak | - | - |
| Altxortegia | 3 280 739,33 | 8 973 371,86 |
| **AKTIBOA GUZTIRA** | **251 053 445,69** | **221 358 363,46** |

Honekin batera doan txosteneko 1etik 13ra bitarteko oharrak 2019ko abenduaren 31ko balantzean daude jasota.
(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

**Laboral Kutxa
Selek Plus, I.F.**

## Balantzea, 2019ko abenduaren 31koa
(Eurotan adierazita)

| ONDAREA ETA PASIBOA | 2019 | 2018 (*) |
|---|---|---|
| **Partaide edo akziodunei esleitutako ondarea** | **249 088 030,57** | **213 183 245,99** |
| Partaide edo akziodunei esleitutako fondo itzulgarriak | 249 088 030,57 | 213 183 245,99 |
| Kapitala | - | - |
| Partaideak | 220 057 010,01 | 230 061 659,15 |
| Jaulkipen-prima | - | - |
| Erreserbak | - | - |
| (Norberaren akzioak) | - | - |
| Aurreko ekitaldietako emaitzak | - | - |
| Bazkideen bestelako ekarpenak | - | - |
| Ekitaldiko emaitza | 29 031 020,56 | (16 878 413,16) |
| (Konturako dibidendua) | - | - |
| Erabilera propioko ibilgetu materialeko balio-aldaketengatiko doikuntzak | - | - |
| Esleitutako bestelako ondarea | - | - |
| **Pasibo ez-korrontea** | - | - |
| Epe luzerako hornidurak | - | - |
| Epe luzerako zorrak | - | - |
| Geroratutako zergagatiko pasiboak | - | - |
| **Pasibo korrontea** | **1 965 415,12** | **8 175 117,47** |
| Epe laburrerako hornidurak | - | - |
| Epe laburrerako zorrak | - | - |
| Hartzekodunak | 1 127 351,89 | 5 685 865,56 |
| Finantza-pasiboak | - | - |
| Deribatuak | 838 063,23 | 2 489 251,91 |
| Periodifikatzeak | - | - |
| **ONDAREA ETA PASIBOA GUZTIRA** | **251 053 445,69** | **221 358 363,46** |

| OROIPEN-KONTUAK | 2019 | 2018 (*) |
|---|---|---|
| **Konpromiso-kontuak** | **56 686 775,56** | **60 946 594,19** |
| Deribatuetako eragiketa luzeengatiko konpromisoak | 37 120 686,60 | 38 990 651,06 |
| Deribatuetako eragiketa laburrengatiko konpromisoak | 19 566 088,96 | 21 955 943,13 |
| **Beste oroipen-kontu batzuk** | **53 432 009,29** | **39 053 684,28** |
| Inbertsio Kolektiboko Elkarteak mailegatutako baloreak | - | - |
| Inbertsio Kolektiboko Erakundeak berme gisa ekarritako baloreak | - | - |
| Inbertsio Kolektiboko Erakundeak berme gisa jasotako baloreak | - | - |
| Harpidetu ez den eta zirkulazioan ez dagoen kapital nominala | - | - |
| Konpentsatu beharreko galera fiskalak | 2 289 960,65 | - |
| Beste batzuk | 51 142 048,64 | 39 053 684,28 |
| **TOTAL OROIPEN-KONTUAK** | **110 118 784,85** | **100 000 278,47** |

Honekin batera doan txosteneko 1etik 13ra bitarteko oharrak 2019ko abenduaren 31ko balantzean daude jasota.
(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

**Laboral Kutxa**
**Selek Plus, I.F.**

## Galdu-irabazien kontua, 2019ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa (Eurotan adierazita)

| | 2019 | 2018 (*) |
|---|---|---|
| Harpidetza edo itzultzeengatiko deskontu-komisioak | - | - |
| Inbertsio Kolektiboko Erakundeari ostera-lagatako komisioak | - | 2 172,72 |
| Pertsonal-gastuak | - | - |
| Beste ustiapen-gastu batzuk | (3 493 963,65) | (3 282 368,35) |
| Gestio-komisioa | (3 248 331,49) | (3 051 745,79) |
| Zaintza-komisioa | (232 023,61) | (217 981,76) |
| Konpartimentua konpentsatzeagatiko sarrera/gastua | - | - |
| Beste batzuk | (13 608,55) | (12 640,80) |
| Ibilgetu materialaren amortizazioa | - | - |
| Gehiegizko hornidurak | - | - |
| Ibilgetua besterentzeagatiko narriadura eta emaitzak | - | - |
| **Ustiapeneko emaitza** | **(3 493 963,65)** | **(3 280 195,63)** |
| Finantza-sarrerak | 674 719,18 | 700 935,65 |
| Finantza-gastuak | - | (3,27) |
| Arrazoizko balioaren aldakuntza finantza-tresnetan | 24 167 124,92 | (10 573 791,26) |
| Barruko zorroko eragiketen ondorioz | 80 409,88 | - |
| Kanpoko zorroko eragiketen ondorioz | 23 525 479,06 | (9 536 791,74) |
| Deribatuekiko eragiketen ondorioz | 561 235,98 | (1 036 999,52) |
| Beste batzuk | - | - |
| Kanbio-aldeak | 41 936,09 | 56 339,46 |
| Finantza-tresnak besterentzeagatiko narriadura eta emaitza | 7 787 088,55 | (3 781 698,11) |
| Narriadurak | - | - |
| Barruko zorroko eragiketen emaitzak | - | - |
| Kanpoko zorroko eragiketen emaitzak | 8 500 440,69 | (4 969 822,88) |
| Deribatuekiko eragiketen emaitzak | (713 352,14) | 1 188 124,77 |
| Beste batzuk | - | - |
| **Emaitza finantzarioa** | **32 670 868,74** | **(13 598 217,53)** |
| **Zerga aurreko emaitza** | **29 176 905,09** | **(16 878 413,16)** |
| Mozkinen gaineko zerga | (145 884,53) | - |
| **EKITALDIKO EMAITZA** | **29 031 020,56** | **(16 878 413,16)** |

Honekin batera doan txosteneko 1etik 13ra bitarteko oharrak 2019ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiko galdu-irabazien kontuan daude jasota.

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

## Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, 2019ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa (Eurotan adierazita)

**2019ko abenduaren 31n**

**A) Aintzatetsitako sarreren eta gastuen egoera-orria**

| | |
|---|---|
| Galdu-irabazien kontuaren emaitza | 29 031 020,56 |
| Partaide eta akziodunei esleitutako ondarean zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak guztira | - |
| Galdu-irabazien konturako transferentziak guztira | - |
| **Aintzatetsitako sarrerak eta gastuak guztira** | **29 031 020,56** |

**B) Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria guztira**

| | Partaideak | Erreserbak | Aurreko ekitaldietako emaitzak | Ekitaldiko emaitza | (Konturako dibidendua) | Esleitutako bestelako ondarea | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **2018ko abenduaren 31ko saldoak (*)** | **230 061 659,15** | **-** | **-** | **(16 878 413,16)** | **-** | **-** | **213 183 245,99** |
| Irizpideak aldatzearen ondoriozko doikuntzak | - | - | - | - | - | - | - |
| Erroreengatiko doikuntzak | - | - | - | - | - | - | - |
| **Doitutako saldoa** | **230 061 659,15** | **-** | **-** | **(16 878 413,16)** | **-** | **-** | **213 183 245,99** |
| Aintzatetsitako sarrerak eta gastuak guztira | - | - | - | 29 031 020,56 | - | - | 29 031 020,56 |
| Ekitaldiko emaitzaren aplikazioa | (16 878 413,16) | - | - | 16 878 413,16 | - | - | - |
| Partaideekiko eragiketak | | | | | | | |
| Harpidetzak | 33 370 645,95 | - | - | - | - | - | 33 370 645,95 |
| Itzultzeak | (26 496 881,93) | - | - | - | - | - | (26 496 881,93) |
| Ondarearen beste aldakuntza batzuk | - | - | - | - | - | - | - |
| **2019ko abenduaren 31ko saldoak** | **220 057 010,01** | **-** | **-** | **29 031 020,56** | **-** | **-** | **249 088 030,57** |

Honekin batera doan txosteneko 1etik 13ra bitarteko oharrak 2019ko abenduaren 31n bukatutako ondare garbiaren aldaketen egoera-orrian daude jasota.

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

## Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, 2018ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa (*)
## (Eurotan adierazita)

**2018ko abenduaren 31n(*)**

**A) Aintzatetsitako sarreren eta gastuen egoera-orria**

| | |
|---|---|
| Galdu-irabazien kontuaren emaitza | (16 878 413,16) |
| Partaide eta akziodunei esleitutako ondarean zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak guztira | - |
| Galdu-irabazien konturako transferentziak guztira | - |
| **Aintzatetsitako sarrerak eta gastuak guztira** | **(16 878 413,16)** |

**B) Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria guztira**

| | Partaideak | Erreserbak | Aurreko ekitaldietako emaitzak | Ekitaldiko emaitza | (Konturako dibidendua) | Esleitutako bestelako ondarea | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **2017ko abenduaren 31ko saldoak (*)** | **196 686 809,87** | - | - | **9 290 619,16** | - | - | **205 977 429,03** |
| Irizpideak aldatzearen ondoriozko doikuntzak | - | - | - | - | - | - | - |
| Erroreengatiko doikuntzak | - | - | - | - | - | - | - |
| **Doitutako saldoa** | **196 686 809,87** | - | - | **9 290 619,16** | - | - | **205 977 429,03** |
| Aintzatetsitako sarrerak eta gastuak guztira | - | - | - | (16 878 413,16) | - | - | (16 878 413,16) |
| Ekitaldiko emaitzaren aplikazioa | 9 290 619,16 | - | - | (9 290 619,16) | - | - | - |
| Partaideekiko eragiketak | | | | | | | |
| Harpidetzak | 44 058 082,35 | - | - | - | - | - | 44 058 082,35 |
| Itzultzeak | (19 973 852,23) | - | - | - | - | - | (19 973 852,23) |
| Ondarearen beste aldakuntza batzuk | - | - | - | - | - | - | - |
| **2018ko abenduaren 31ko saldoak (*)** | **230 061 659,15** | - | - | **(16 878 413,16)** | - | - | **213 183 245,99** |

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

## 1. JARDUERA ETA ARRISKUAREN GESTIOA

### a) Jarduera

Laboral Kutxa Selek Plus Inbertsio Fondoa (aurrerantzean Fondoa) 2012ko otsailaren 21ean eratu zen Arrasaten (Gipuzkoan). Hasieran, Caja Laboral Selek Plus Inbertsio Fondoa bazuen ere izen soziala, 2015eko irailaren 4an aldatu egin zitzaion eta egun duena jarri. Jose M. Arizmendiarrieta pasealekuan, Arrasaten, du egoitza soziala.

2012ko martxoaren 2tik, Balore Merkatuko Komisio Nazionalaren (CNMVren) Inbertsio Fondoen Erregistroan dago erregistratuta 4.448 zenbakiarekin. Ordutik, Inbertsio Fondoa da lege-ondorioetarako.

Fondoen Inbertsio Kolektiboko Erakunde bat da Fondoa, eta bere aktiboa izaera finantzarioko Inbertsio Kolektiboko hainbat Erakunderen akzio edo partaidetzetan inbertitzen du batik bat.

35/2003 Legearen 1. artikuluak xedatzen duenari jarraikiz, —31/2011 Legeak eta ondorengo aldakuntzek aldatu zuten—, jendearen fondoak, ondasunak eta eskubideak gestionatu eta ondasun, eskubide, balore edo beste finantza-tresna batzuetan inbertitzea da inbertsio kolektiboko erakundeen helburua, betiere inbertitzailearen errendimendua emaitza kolektiboen arabera ezartzen bada.

Fondoaren gestioa, administrazioa eta ordezkaritza Caja Laboral Gestión SGIIC SAren ardura da. Sozietate horren % 100eko partaidetza Caja Laboral Popular Coop. de Créditorena da, Fondoaren Entitate Gordailuzainarena, alegia.

Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak (2011ko urriaren 4ko 31/2011ko Legeak aldatu zuenak) 68. artikuluan gordailuzainarengandik bereizteari buruz ezarri zituen eskakizunak betetzeko, Caja Laboral Gestión SGIIC SAk, Sozietate Gestorea den aldetik, eta Caja Laboral Popular Coop. de Créditok, Entitate Gordailuzaina den aldetik, prozedura berezi bat sortu dute, bien arteko interes-gatazkak saihesteko.

Entitate Gordailuzain horrek Fondoa zaindu, gainbegiratu, jagon eta administratu egin behar du, 2008ko martxoaren 5eko EHA 596/2008 Aginduan ezarritakoari jarraikiz.

Batez ere 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak eta ondorengo aldakuntzek inbertsio-fondoei buruz ezarritakoaren mende dago Fondoa; Inbertsio Kolektiboko Erakundeen 35/2003 Legea garatzeko erregelamendua eta ondorengo aldakuntzak onartzen ditu dekretu horrek. Araudiak alderdi hauek arautzen ditu, besteak beste:

- Lege hori indarrean sartu ondoren, ordura arte Balore Higigarrietako Inbertsio Fondo (BHIF) zirenak eta horren aldaerak Inbertsio Fondo (IF) dira automatikoki.

- Ondareak 3.000.000 eurokoa izan behar du gutxienez. Konpartimentudun fondoen kasuan, konpartimentu bakoitzak 600.000 euro izan beharko ditu gutxienez, baina Fondoaren ondarea ezin izango da, inolaz ere, ezarrita dagoen hori baino txikiagoa izan.

- Fondoak 100 partaide izan beharko ditu, gutxienez, eta konpartimentudun inbertsio-fondoen kasuan, konpartimentu bakoitzeko gutxienez 20 partaide.

- Merkatuaren inguruabarren ondorioz edo indarreko araudia bete behar delako fondoaren ondarea, partaide-kopurua edo konpartimentuetako bat 1082/2012 Errege Dekretuan eta hurrengo aldaketetan ezarritako gutxienekoetatik behera jaisten badira, erakunde horiek urtebeteko epea izango dute izaera horrekin jarduten jarraitzeko.

- Fondoaren balore higigarriak eta gainerako finantza-aktiboak ezin dira pignoratu, ezta inolako bermetarako erabili ere, baldin eta Fondoak deribatuen bigarren mailako merkatu ofizialetan edo deribatuen merkatu antolatu gabeetan egindako eragiketak bermatzeko ez bada. Gainera, zenbatekoa ezingo da izan tresnon balioztapenean gertatutako aldaketen ondorioz sortu diren galdu-irabazien eguneko likidazioa baino handiagoa, eta 2005eko martxoaren 11ko 5/2005 Errege Lege Dekretuan, produktibitatea sustatzeko eta kontratazio publikoa hobetzeko premiazko erreformei buruzkoan, arautatako kontratuzko konpentsazioari eta berme finantzarioei buruzko akordioetan jasota egon beharko dira, bai eta zeregin hori gauzatzeko legezko gaitasuna duten erakundeen zaintzapean ere.

- Hirugarrenen aurreko obligazioetarako eta inbertsioen kontzentraziorako gehienezko ehunekoak finkatu dira.

- Fondoak gutxienez ondarearen hileko batez bestekoaren % 1eko likidezia-koefizientea izan behar du, eta eskudirutan, gordailuetan edo ageriko kontuetan gauzatuko da Gordailuzainean, edo beste kreditu-erakunde batean (Gordailuzainak izaera hori ez badu), edo, bestela, zor publikoko baloreen egun batera berrerosteko itunpeko salerosketetan.

- Fondoa muga orokor batzuen mende dago merkatu-arriskuagatiko tresna deribatuak erabiltzeari dagokionez, bai eta aurkako alderdiaren arriskuari dagokionez ere.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, Fondoa ez dago konpartimentutan banatuta.

Fondoaren Gestio Erregelamenduaren arabera, Sozietate Gestoreak komisioa jasoko du, urtero, gestio-gastuen ordainetan, baina zenbatekoa ez da izango Fondoaren ondarearen % 2,25 baino handiagoa. 2019ko eta 2018ko ekitaldietan, % 1,4koa izan da gestio-komisio hori.

Halaber, Fondoaren Gestio Erregelamenduak ezartzen du Erakunde Gordailuzainak ezin izango duela urtean gordailututako ondarearen % 0,2 baino gehiago ordaindu. 2019ko eta 2018ko ekitaldietan zehar, % 0,1ekoa izan da gordailuzaintza-komisioa.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, Sozietate Gestoreak ez die Fondoaren partaideei harpidetutako partaidetzen gaineko komisiorik kobratu, ezta itzulitako partaidetzen gainekorik ere.

Bestalde, Fondoak beste Sozietate Gestore batzuen komisio-itzulketak jasotzen ditu, horiek gestionatutako inbertsio-fondoetan egindako inbertsioen ondorioz. Itzulketa horiek erantsitako galdu-irabazien kontuko «Inbertsio Kolektiboko Erakundeari ostera-lagatako komisioak» epigrafean daude erregistratuta, eta 0 eta 2.172,72 eurokoak dira, 2019an eta 2018an, hurrenez hurren.

## b) Arriskuaren gestioa

Fondoaren inbertsio-politika eta atxikita dituen arrisku nagusien deskribapena erregistratutako liburuxkan zehaztu dira. Jendearen eskura dago CNMVren erregistroan.

Fondoak finantza-merkatuetan jarduten duenez, hauek dira eragiten dioten arrisku nagusiak:

- Merkatu-arriskua. Fondoak eragiketak egiten dituen finantza-aktiboen merkatu-prezioetan kontrako mugimenduak egotearen ondorioz galeretan erortzeko arriskua da. Arrisku horien artean, interes-tasak, kanbio-tasak eta Fondoak zorroan dituen tituluen kotizazioak dira nabarmenenak.

- Kreditu-arriskua. Kontrako alderdiak Fondoarekiko finantza-obligazioak betetzeko duen gaitasunean edo asmoan aldaketak egotearen ondorioz sor daitezkeen galeren arriskua da.

- Likidezia-arriskua. Fondoak zorroko aktiboak merkaturatzean zailtasunak izateagatik partaideen itzultze-eskaerei erantzun ahal ez izatean sortzen da.

- Eragiketa-arriskua. Langileek kale egitearen, barruko prozesuak desegokiak edo akastunak izatearen, sistemek huts egitearen edo kanpoko beste edozein gertakizunen ondorioz galerak izateko arriskua da.

Sozietate Gestoreak finkatuta ditu merkatu-, kreditu-, likidezia- eta eragiketa-arriskuei aurre egiteko beharrezko mekanismoak. Horrela, bada, aurreko 1.a) atalean aipatu diren arau-koefizienteen kontrolak arrisku horiekiko esposizioa mugatzea du helburu.

## 2. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

### a) Egoera zehaztasunez

Urteko kontuak Fondoaren Sozietate Gestoreko administratzaileek formulatu dituzte, Fondoaren kontabilitate-erregistroetan oinarrituta. Kontabilitatearen alorrean indarrean dauden lege-xedapenak aplikatu dituzte, ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen berri zehatza emateko.

Erantsitako urteko kontuak Sozietate Gestoreko Administrazio Kontseiluak onesteko daude; dena den, administratzaileen ustetan, aldaketa handirik egin gabe onartuko dituzte.

### b) Kontabilitate-printzipioak

Kontu hauek egiteko, nagusiki Balore Merkatuko Komisio Nazionalaren 3/2008 Zirkularrean eta ondorengo aldakuntzetan jasotako kontabilitate- eta sailkapen-printzipio eta -irizpideak erabili dira. Printzipiorik nabarmenenak 3. oharrean deskribatu ditugu. Nahitaez aplikatu beharreko kontabilitate-printzipioei dagokienez, urteko kontu hauetan eragin nabarmena duen bakar bat ere ez da utzi aplikatu gabe.

### c) Alderagarritasuna

2019ko abenduaren 31ko urteko kontuak aurkezteko, CNMVren indarreko araudian ezarrita dauden kontabilitate-egitura eta -printzipioak hartu dira kontuan.

Fondoaren balantzeari, galdu-irabazien kontuari eta ondare garbiaren aldaketen egoera-orriari dagozkion partiden 2019ko zenbatekoez gain, aurreko urtekoak ere aurkeztu dituzte Sozietate Gestoreko administratzaileek, alderatzeko.

Kontabilitatean ez da gertatu 2019ko eta 2018ko ekitaldietako urteko kontuen arteko konparazioari nabarmen eragin diezaiokeen aldaketarik.

### d) Kontabilitate-estimazioak eta akatsen zuzenketa

Zenbaitzuetan, Sozietate Gestoreko administratzaileek estimazioak egin dituzte urteko kontuetan erregistratuta dauden aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso batzuen balioztapena lortzeko. Estimazio horiek finantza-aktibo jakin batzuen arrazoizko balioari eta narriaduraren ondorioz izan daitezkeen galerei buruzkoak dira, nagusiki.

Kalkulua egiterakoan eskura dagoen informazioaren arabera horiek estimaziorik onenak diren arren, gerta liteke etorkizuneko gertaeren ondorioz indarreko araudiari jarraikiz aldatu behar izatea.

Edonola ere, merkatuko prezioen gorabeherek eta finantza-inbertsioei lotutako beste arrisku batzuek eragina izango dute Fondoaren likidazio-balioan.

Kontabilitate-estimazioetan ez da aldaketarik gertatu, eta 2019ko eta 2018ko ekitaldietan ez da aurreko ekitaldietako akatsik aurkitu.

Urteko kontu hauetako, balantzeko, galdu-irabazien kontuko, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriko eta txosten honetako zifrak eurotan daude adierazita, berariaz kontrakoa ez bada adierazten.

## 3. KONTABILITATE-PRINTZIPIORIK ETA BALIOZTAPEN-ARAURIK NABARMENENEN LABURPENA

Hauek dira urteko kontu hauek egiten erabilitako kontabilitate-printzipiorik nabarmenenak:

### a) Jarduneko enpresaren printzipioa

Urteko kontuak egitean, Fondoaren kudeaketak etorkizunean ere aurrera jarraituko duela hartu da kontuan. Hortaz, kontabilitate-arauak aplikatzearen helburua ez da ondare osoa edo zati bat transmititzeari begira horren balioa ezartzea edo likidazioa eginez gero emango lukeen zenbatekoa finkatzea.

### b) Sortzapen-printzipioa

Sarrerak eta gastuak sortu diren epealdian kontabilizatzen dira, benetan noiz kobratu edo ordaindu diren kontuan hartu gabe.

*i. Interes eta dibidenduen ondoriozko sarrerak*

Eskurapen-unearen ondoren sortutako finantza-aktiboen interesak, baldin badaude, sortzapen-aldiaren arabera kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz. Inbertsio berankor, zalantzazko edo auzipekoen interesak, berriz, kobratzen direnean erregistratzen dira. Finantza-aktiboen zorrotik datozen interesen periodifikazioa balantzeko aktiboko «Finantza-inbertsioen zorroa – Inbertsio-zorroko interesak» epigrafean erregistratzen da. Kontu horren kontrapartida galdu-irabazien kontuko «Finantza-sarrerak» epigrafean erregistratzen da.

Beste sozietate batzuetatik jasotako dibidenduak, baldin badaude, galdu-irabazien kontuko «Finantza-sarrerak» epigrafean aintzatesten dira, Fondoari jasotzeko eskubidea sortzen zaion unean.

*ii. Komisioak eta antzeko kontzeptuak*

Aurrez jasandako komisioak ostera-lagatzearen ondorioz Fondoak zuzenean edo zeharka jasotzen dituen sarrerak, dagokionean, galdu-irabazien kontuko «Inbertsio Kolektiboko Erakundeei ostera-lagatako komisioak» epigrafean erregistratzen dira.

Gestioaren eta gordailutzearen ondoriozko komisioak eta Fondoaren jardunerako beharrezkoak diren beste gestioko gastu batzuk izaeraren arabera erregistratzen dira, galdu-irabazien kontuko «Beste ustiapen-gastu batzuk» epigrafean.

*iii. Arrazoizko balioaren aldakuntza finantza-tresnetan*

Finantza-aktiboen eta -pasiboen arrazoizko balioan aldaketak egotearen ondoriozko irabazia edo galera (egindakoa edo egin gabekoa) Fondoaren galdu-irabazien kontuko «Finantza-tresnak besterentzeagatiko narriadura eta emaitza» eta «Arrazoizko balioaren aldakuntza finantza-tresnetan» epigrafeetan erregistratzen dira, dagokion moduan.

*iv. Finantzarioak ez diren sarrerak eta gastuak*

Sortzapen-irizpidearen arabera kontabilizatzen dira.

Sarrerak eta gastuak sortu diren epealdian kontabilizatzen dira, benetan noiz kobratu edo ordaindu diren kontuan hartu gabe.

**c) Zordunak**

Hasierako balioztapena arrazoizko balioan egiten da, eta, kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa izango da. Prezio hori kalkulatzeko, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehitzen zaio zuzenean egoztekoak diren transakzio-kostuei.

Osteko balorazioa amortizatutako kostuan egiten da. Sortutako interesak interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontuan. Edonola ere, urtebete baino lehen jasotzea espero diren kontu-sailak balio nominalaren arabera balioztatzen dira.

Kobratzeko kontu-sailen balioa narriatzeagatiko galerak kalkulatzeko, balioetsitako etorkizuneko eskudiru-fluxuak hartzen dira aintzat, aintzatespena egitean kalkulatutako interes-tasa efektiboan deskontatuta. Narriaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketak eta lehengoratzea gastu edo sarreratzat hartzen dira galdu-irabazien kontuan.

### d) Finantza-inbertsioen zorroa

Finantza-inbertsioen zorroko aktiboak galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan kategorian sartzen dira. Zorroko finantza-produktu nagusiak eta horien arrazoizko balioaren zehaztapena jasoko ditugu jarraian:

- Zorra adierazten duten baloreak. Jaulkitzailearentzat zorra eragiten duten baloreak dira, eta sortzen duten interesa kontratu bidez finkatzen da.

  Kotizatutako zorra adierazten duten baloreen arrazoizko balioa merkatu bateko kotizazio-prezioetan oinarrituz zehazten da, baldin eta merkatu hori aktiboa bada eta prezioak modu tinkoan lortzen badira. Kotizazio-preziorik ez dagoenean, arrazoizko balioa transakzioaren prezio berrienarekin dator bat, baldin eta transakzioaren unetik baldintza ekonomikoetan ez bada aldaketa handirik gertatu.

  Zor-tresnarako merkatu aktiborik ez badago, balioztapen-teknika hauek erabiltzen dira: bitartekariek, jaulkitzaileek edo informazio-hedatzaileek emandako prezioak; alderdi interesdunen artean elkarrekiko independentziaz eta behar bezala informatuta egindako merkatuko oraintsuko transakzioak (eskuragarri badaude); funtsean bera den beste tresna baten egungo arrazoizko balioa; edo, dagokionean, fluxuen deskontu-ereduak eta aukeren balioztapenak.

  Kobratu ez diren eta zorra adierazten duten baloreek sortutako interesak interes-tasa efektiboaren arabera periodifikatu eta ekitaldiko emaitzen artean sartzen dira.

- Ondare-tresnak. Beste erakunde batzuek jaulkitako finantza-tresnak (akzioak eta partaidetza-kuotak, adibidez), jaulkitzailearentzat kapital-tresnen izaera badute.

  Kotizatutako ondare-tresnen arrazoizko balioa balantze-eguneko edo, bestela, aurreko laneguneko itxierako kanbio ofizialak finkatzen du, eta, itxierako prezio ofizialik ez badago, haztatutako batez besteko kanbioak.

- Kreditu-erakundeetako gordailuak. Fondoak kreditu-erakundeetan dituen gordailuak, «Altxortegia» epigrafean jasotako saldoak salbu.

  Inbertsioaren barne-errendimendua une bakoitzean merkatuan indarrean dauden tasekin parekatzen duen zenbatekoa hartzen da arrazoizko baliotzat.

- Erreferentziazko eguneko likidazio-balioaren edo kotizazio-balioaren arabera ezartzen da horien arrazoizko balioa. Erreferentziazko egunerako ez bada likidazio-baliorik kalkulatu, eskura dagoen azken likidazio-balioa erabiliko da.

Inbertsio Askeko Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan, Inbertsio Askeko Inbertsio Kolektiboko Erakundeen Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan eta atzerriko antzeko Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan inbertitzeko, behar denean, estimatutako likidazio-balioak erabiltzen dira.

- Deribatuak. Barne hartzen ditu, besteak beste, gerokoen eta forwarden kontratuetako balio-aldeak, erositako edo jaulkitako warrant eta aukerengatik kobratutako nahiz ordaindutako hobariak, finantza-trukeko kontratuei lotutako kobrantza edo ordainketak eta egituratutako produktuetako inbertsioak.

  Itxierako kanbio ofizialak erreferentziazko egunean duen balioak zehazten du bere arrazoizko balioa. Antolatutako merkatuetan negoziatu ez direnentzat, CNMVren 6/2010 Zirkularrean eta ondorengo aldakuntzetan ezarritako baldintzen araberako balioztapen-eredua ezartzen du Sozietate Gestoreak.

Inbertsioa nabarmen eta konpontzeko modurik gabe narriatzen zaizkien aktiboei baja emango zaie, galdu-irabazien kontuaren kargura.

Finantza-aktibo eta -pasiboei horien jabegoak berezkoak dituen arrisku eta onura guztiak intsuldatzen direnean ematen zaie baja balantzean.

### e) Aktiboen aldi baterako eskurapena eta lagapena

Aktiboen aldi baterako eskurapenak edo ostera lagatzeko itundun eskurapenak despoltsatutako zenbateko efektiboaren arabera kontabilizatzen dira, dagokien aktiboen kontuan, azpian dituzten tresnak edozein direlarik ere.

Kopuru horren eta ostera-lagapenaren prezioaren arteko aldea galdu-irabazien kontuan egozten da sarrera moduan, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz.

Arrazoizko balioen arteko aldeak galdu-irabazien kontuko «Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza» epigrafean egozten dira.

Aldi baterako eskuratutako aktiboaren lagapen irmoa «galdu-irabazietan aldaketak dituen finantza-pasiboa arrazoizko balioan» kategorian erregistratzen da.

### f) Ondare-tresnak

Ondare-tresna kotizatuak kontratatzen direnean erregistratzen dira, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioan; zuzenean eragiketari egoztekoak diren transakzio-kostu esplizituak ere hartzen dira kontuan.

Aktibo horien arrazoizko balioan gertatutako aldaketen ondoriozko aldeak honela jasotzen dira galdu-irabazien kontuan: alde negatibo edo positiboak «Finantza-tresnak besterentzeagatiko narriadura eta emaitza» edo «Barruko edo kanpoko zorroko eragiketen ondorioz finantza-tresnen arrazoizko balioan gertatutako aldakuntzak» epigrafeetan erregistratzen dira, likidatu diren ala ez aintzat hartuta. Kontrapartida moduan, balantzeko aktiboaren barruko nahiz kanpoko zorroko «Ondare-tresnak» epigrafea erabiltzen da.

g) **Zorra adierazten duten baloreak**

Zorra adierazten duten baloreak likidatzean erregistratzen dira, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioan; zuzenean eragiketari egoztekoak diren transakzio-kostu esplizituak ere hartzen dira kontuan.

Aktibo horien arrazoizko balioan gertatutako aldaketen ondoriozko aldeak honela jasotzen dira galdu-irabazien kontuan: alde negatibo edo positiboak «Finantza-tresnak besterentzeagatiko narriadura eta emaitza» edo «Barruko edo kanpoko zorroko eragiketen ondorioz finantza-tresnen arrazoizko balioan gertatutako aldakuntzak» epigrafeetan erregistratzen dira, likidatu diren ala ez aintzat hartuta. Kontrapartida moduan, balantzeko aktiboaren barruko nahiz kanpoko zorroko «Zorra adierazten duten baloreak» epigrafea erabiltzen da.

h) **Deribatuetako eragiketak, finantza-trukeak kanpo utzita**

Deribatuetako eragiketak oroipen-kontuetan dagokien epigrafean erregistratzen dira, kontratatzen direnean eta posizioa itxi arte edo kontratua mugaegunaratu arte. Konprometitu den zenbatekoa idazten da.

Berme gisa gordailututako fondoak, lagatako gordailu gisa hartzen dira kontabilitatean, eta balantzeko aktiboko «Zordunak» epigrafean dagokien atalean erregistratzen dira.

Bermetan emandako baloreen arrazoizko balioa oroipen-kontuetan erregistratzen da, «Inbertsio Kolektiboko Erakundeak berme gisa ekarritako baloreak» epigrafean.

Erositako edo jaulkitako aukeren ondoriozko primak balantzeko aktiboko edo pasiboko «Deribatuak» epigrafean jasotzen dira, eragiketa egin zen datarekin.

Aktibo horien arrazoizko balioan gertatutako aldaketen ondoriozko aldeak honela jasotzen dira galdu-irabazien kontuan: alde negatibo edo positiboak «Deribatuetako eragiketen emaitzak» edo «Deribatuetako eragiketen ondorioz finantza-tresnen arrazoizko balioan gertatutako aldakuntzak» epigrafeetan erregistratzen dira, aldakuntzak likidatu diren ala ez aintzat hartuta. Kontrapartida moduan, balantzeko aktiboko edo pasibo korronteko barruko nahiz kanpoko zorroko «Deribatuak» epigrafea erabiltzen da.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, Fondoak deribatuetako eragiketak ditu zorroan.

i) **Konpromiso-kontuak**

CNMVren 2010eko abenduaren 21eko 6/2010 Zirkularrak, Inbertsio Kolektiboko Erakundeen tresna deribatuekiko eragiketei buruzkoak, ezartzen duenari jarraikiz, Sozietateak ez badu deskonposizioa egin erreferentziatzat hartzen dituen esposizioen arabera inbertsioak egiten dituen Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan (Zirkular horren 6.5 Arauan ezarritakoaren arabera), gainerakoetatik aparteko

azpiko edo arrisku-faktore gisa hartu behar ditu posizio horiek. Horregatik, Sozietateak besteak beste «Konpromiso-kontuak» epigrafean sartzen ditu posizio horiek, betiere Sozietateak horren inguruko informaziorik badu.

**j) Atzerri-dirua**

Altxortegiari, zordunketei edo kredituei dagozkien diruzko partidetarako, kanbio-aldeak, positiboak zein negatiboak, «Kanbio-aldeak» epigrafean aintzatesten dira galdu-irabazien kontuan.

Finantza-tresnen zorroa osatzen duten eta diruzkoak diren eta ez diren gainerako kontu-sailetan, kanbio-aldeak balioztapenaren ondoriozko galdu-irabaziekin batera hartzen dira.

**k) Partaidetzen likidazio-balioa**

Fondoa osatzen duten partaidetzen likidazio-balioa kalkulatzeko, haren ondarea zehazten da, Balore Merkatuko Komisio Nazionalaren 2008ko azaroaren 26ko 6/2008 Zirkularrean eta ondorengo aldakuntzetan ezarritako irizpideak erabiliz.

**l) Harpidetzak eta itzultzeak**

Partaidetzen harpidetzak edo itzultzeak benetan harpidetu edo itzulitako kopuruarekin kontabilizatzen dira, eta Fondoaren balantzeko pasiboko «Partaideak» atalean ordaindu edo zordundu, kasuan kasukoa.

Fondoaren Gestio Erregelamenduari jarraikiz, interesdunak eskaera egin duen eguneko likidazio-balioarena izango da partaidetzen prezioa, eta horrela finkatuko dira bai harpidetu nahiz itzulitako partaidetzen kopurua, bai dagokionean itzuli beharreko eskudirua.

**m) Mozkinen gaineko zerga**

Mozkinen gaineko zergaren ondoriozko gastua galdu-irabazien kontuan adierazten da, eta zenbatekoa kalkulatzerakoan zerga-oinarriaren eta geroagoko epealdietan eragina izango duen zerga aplikatu aurreko kontabilitate-emaitzaren arteko aldeak hartzen dira kontuan.

Zerga geroratuen ondoriozko pasiboak beti aintzatesten dira; zerga geroratuen aktiboak, berriz, erakundeak etorkizunean irabazi fiskalak izateko eta, ondorioz, aktibook aplikatzeko aukerak daudenean soilik.

Galera fiskalen ondorioz hurrengo ekitaldietan konpentsatu beharreko eskubideek ez dakarte berekin, inolaz ere, aktibo bat geroratutako zergaren arabera aintzatestea, eta gastua likidazio-balioaren kalkuluaren maiztasunez zergaren arabera konpentsatuz aintzatesten dira soilik. Konpentsa daitezkeen galera fiskalak «Oroipen-kontuak – Konpentsatzeko galera fiskalak» epigrafean erregistratzen dira.

## 4. ZORDUNAK

Hona hemen epigrafe horren banakatzea, 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n:

| | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| Berme-gordailuak | 1 869 637,14 | 4 690 875,84 |
| Administrazio publikoak zordun | 27 170,54 | 94 097,97 |
| Likidatzeko dauden eragiketak | 16 496,80 | 1 361 961,91 |
| | **1 913 304,48** | **6 146 935,72** |

«Zordunak – Berme-gordailuak» atalaren barruan, ekitaldia amaitzean indarrean zeuden finantza-gerokoen posizioen berme gisa eratutako gordailuen 2019ko eta 2018ko abenduaren 31ko balioa dago jasota.

Interesen eta kapital higigarriko beste errendimendu batzuen gainean ekitaldian egindako atxikipenak jasotzen ditu 2019ko eta 2018ko abenduaren 31ko «Administrazio publikoak zordun» atalak.

«Zordunak – Likidatzeko dauden eragiketak» atalean, likidatu gabe dauden 16.496,80 eta 1.361.961,91 euroko baloreak saltzeko eragiketak, ekitaldiko azken egunetakoak, daude, batez ere, jasota. Horien likidazioak 2020ko eta 2019ko urtarrilaren lehen egunetan egin dira.

## 5. HARTZEKODUNAK

Hona hemen epigrafe horren banakatzea, 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n:

| | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| Administrazio publikoak hartzekodun | 145 884,53 | - |
| Likidatzeko dauden eragiketak | - | 5 306 908,70 |
| Beste batzuk | 981 467,36 | 378 956,86 |
| | **1 127 351,89** | **5 685 865,56** |

2019ko abenduaren 31ko «Administrazio publikoak hartzekodun» atalak ekitaldian sortutako mozkinen gaineko zerga biltzen du.

2018ko abenduaren 31ko «Hartzekodunak – Likidatzeko dauden eragiketak» atalean, ekitaldi horretako azken egunetan likidatzeko zeuden 5.295.000,00 euroko baloreak erosteko eragiketak zeuden, batez ere, jasota. Horien likidazioa 2019ko urtarrilaren lehen egunetan egin zen.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31ko «Hartzekodunak – Beste batzuk» atalean, kasuan kasuko ekitaldia ixtean ordaintzeko dauden gestio- eta gordailuzaintza-komisioen zenbatekoa jaso da, batez ere.

2019ko eta 2018ko ekitaldietan zehar, Fondoak ez du legez ezarritakotik gorako geroratzerik duen ordainketarik egin. Era berean, 2019ko eta 2018ko ekitaldiak ixtean, Fondoak ez du legeak ezarritako epea gainditzen duen geroratzedun saldorik ordaintzeko.

## 6. FINANTZA-INBERTSIOEN ZORROA

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, hauxe da Fondoaren balore-zorroa, aktibo-motaren arabera:

| | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| **Barruko zorroa** | **38 838 659,88** | **18 500 000,00** |
| Zorra adierazten duten baloreak | 38 838 659,88 | 18 500 000,00 |
| **Kanpoko zorroa** | **206 953 018,02** | **187 622 960,54** |
| Zorra adierazten duten baloreak | 5 058 296,64 | 9 938 039,97 |
| Inbertsio Kolektiboko Erakundeak | 201 894 721,38 | 177 684 920,57 |
| **Inbertsio-zorroko interesak** | **67 723,98** | **115 095,34** |
| | **245 859 401,88** | **206 238 055,88** |

Txosten honekin batera doazen I. eta II. eranskinetan, Fondoaren finantza-inbertsioen zorroak eta deribatuetan egindako inbertsioek 2019ko abenduaren 31n duten osaera zehaztu da. Txosten honekin batera doazen III. eta IV. eranskinetan, Fondoaren finantza-inbertsioen zorroak eta deribatuetan egindako inbertsioek 2018ko abenduaren 31n zuten osaera zehaztu da.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, finantza-inbertsioen zorroko titulu guztiak Caja Laboral Popular Coop. de Crédito-n eta Banco Inversis SAn daude gordailututa.

## 7. ALTXORTEGIA

El detalle de este epígrafe al cierre de los ejercicios 2019 y 2018, se muestra a continuación:

| | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| Erakunde Gordailuzaineko kontuak | 2 667 036,50 | 7 673 132,64 |
| Altxortegiko beste kontu batzuk | 613 702,83 | 1 300 239,22 |
| | **3 280 739,33** | **8 973 371,86** |

2019ko eta 2018ko abenduaren 31ko «Gordailuzaineko kontuak» atalean, Fondoak Gordailuzainean dituen kontu korronteetako saldoa dago jasota. Kontu korronte horiek % 0ko interes-tasa jaso dute 2 ekitaldietan.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31ko «Altxortegiko beste kontu batzuk» atalak hurrenez hurren Cecabank SAko kontu korronteko saldoa biltzen du, batik bat. Horren bidez, deribatuekiko eragiketak egiten dira.

## 8. PARTAIDEEI ESLEITUTAKO ONDAREA

Fondoaren partaidetza guztiak balio nominalik gabeko izendun ziurtagiri bidez daude ordezkatuta, eta horiek ondarearen gaineko jabetza-eskubidea ematen diete jabeei.

Partaidetza bakoitzaren 2019ko eta 2018ko abenduaren 31ko likidazio-balioa honela lortu da:

| | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| Partaideei esleitutako ondarea | 249 088 030,57 | 213 183 245,99 |
| Jaulkitako partaidetza-kopurua | 31 277 486,94 | 30 393 765,88 |
| Partaidetzaren likidazio-balioa | 7,96 | 7,01 |
| Partaide-kopurua | 4 139 | 3 951 |

Partaideei esleitutako ondareak 2019ko eta 2018ko ekitaldietan izandako mugimendua «Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria» atalean jaso da.

Ekitaldiko emaitza, mozkinen gaineko zerga aintzat hartu ostean, Fondoko «Partaideak» kontuan banatuko da.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, ez dago % 20tik gorako partaidetza duen partaiderik. Hortaz, Inbertsio Kolektiboko Erakundeen 1082/2012 Errege Dekretuaren 31. artikuluaren arabera, ez dago partaidetza nabarmenik.

## 9. KONPROMISO-KONTUAK

Txosten honekin batera doazen II. eta IV. eranskinetan, Fondoaren finantza-inbertsioen zorroak eta deribatuetan egindako inbertsioek 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n duten osaera zehaztu da.

## 10. BESTE OROIPEN-KONTU BATZUK

Hona hemen epigrafe horren banakatzea, 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n:

| | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| Konpentsatu beharreko galera fiskalak | 2 289 960,65 | - |
| Beste batzuk | 51 142 048,64 | 39 053 684,28 |
| | **53 432 009,29** | **39 053 684,28** |

## 11. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK ETA EGOERA FISKALA

2019ko eta 2018ko ekitaldietan zehar, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2014ko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergari buruzkoak, arautu du Fondoaren erregimen fiskala, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren 1996ko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua, sozietateen gaineko zergari buruzkoa, eta ondorengo aldakuntzak indargabetu zituenetik. 2019ko eta 2018ko ekitaldietan zehar, Fondoak 100eko 1eko karga-tasa izan du sozietateen gaineko zergan, betiere 35/2003 Legearen bosgarren eta bederatzigarren artikuluetan eta ondorengo aldakuntzetan adierazten diren partaideak baditu gutxienez.

Gainera, 2/2014 Foru Arauaren aldakuntza horiek direla eta, 2018ko ekitalditik aurrera aplikatzekoak diren eta aurreko ekitaldietatik datozen zerga-oinarri negatiboen, likidatu edo autolikidatu direnen, konpentsazioa, konpentsazio hori egin aurreko zerga-oinarri positiboaren % 50ekoa izango da, gehienez. Muga % 70ekoa izango da Foru Arau horren 13. artikuluan zehaztutako mikroenpresentzat eta enpresa txikientzat.

2019ko abenduaren 31n 2.289.960,65 eurokoa da konpentsatzeko dauden zerga-oinarri negatiboen zenbatekoa.

2019ko ekitaldian, berriz, zerga aurreko kontabilitate-emaitzaren eta sozietateen gaineko zerga-oinarriaren arteko aldea bat dator Fondo xurgatuak aurreko ekitaldietan sortutako zerga-oinarri negatiboen konpentsazioarekin.

Indarrean dagoen legediaren arabera, Fondoari dagozkion zergak ezin dira behin betikotzat jo, harik eta agintari fiskalek ikuskatzen dituzten arte edo 4 urteko preskripzio-epea iragan arte.

Azken 4 ekitaldietako zerga guztiak ikuskatzeko prest ditu Fondoak.

Ez dago agintari fiskalen ikuskaritzaren ondorioz gorabehera nabarmenik sortzeko arriskurik.

## 12. BESTELAKO INFORMAZIOA

Sozietate Gestoreak 35/2003 Legearen 67. artikuluan eta ondorengo aldakuntzetan eta 1082/2012 Errege Dekretuaren 139. artikuluan eta ondorengo aldakuntzetan aurreikusitako eragiketa lotetsiak egiten ditu Fondoaren kontura. Horretarako, Sozietate Gestoreak zenbait prozedura ezarri ditu, interes-gatazkak saihesteko eta lotutako eragiketak Fondoaren mesedetan eta merkatu-prezioetan egiten direla bermatzeko. Aldian behin egin beharreko txostenetan, egindako eragiketa lotetsien informazioa txertatzen da, CNMVren 4/2008 Zirkularrean eta ondorengo aldakuntzetan arautuakoari men eginez. Gainera, Sozietate Gestorearekin edo horri lotutako beste pertsona nahiz erakunde batzuekin Fondoaren kontura egindako eragiketa lotetsiak ere jasotzen ditu, eta horien izaeraren, arriskuen eta zereginen berri ematen du.

Beste alde batetik, «Jarduera eta arriskuaren gestioa» izeneko oharrean, Sozietate Gestorearen Taldekoak diren erakundeek gestionatutako Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan jatorria duten ostera-lagatako komisioen zenbatekoa jasotzen da, baldin eta ekitaldian sortutakoak badira.

Gordailuzainarekin egiten dituen eragiketei dagokienez, «Altxortegia» oharrean Fondoak Gordailuzainarekin dituen kontuen berri ematen da, eta, I. eta III. eranskinetan,

hurrenez hurren 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n Gordailuzainarekin egindako aktiboen aldi baterako eskurapenak jasotzen dira.

Erakundeak ez duenez ez langilerik ez bulegorik, eta bere izaera kontuan hartuta Inbertsio Kolektiboko Erakundeak Gestionatzeko Sozietate batek gestionatu behar duenez, Sozietate Gestoreari bakarrik aplikatzen zaizkio ingurumena babesteari eta langileen segurtasuna eta osasuna zaintzeari buruzko gaiak.

PricewaterhouseCoopers Auditores SLk 4na mila euroko zerbitzu-sariak jaso ditu 2019ko eta 2018ko ekitaldietako urteko kontuen auditoretza egiteagatik. Ekitaldi horietan, sozietate ikuskatzaileak edo horri atxikitako enpresek ez dute kontu-ikuskaritzaz bestelako zerbitzurik eman.

## 13. OSTEKO EGITATEAK

2019ko abenduaz geroztik, COVID-19a, koronabirusaren andui berria, hedatu da Txinatik beste herrialde batzuetara (Espainia tartean dela). Gertaera horrek mundu osoko ekonomiari eragin dio, eta, ondorioz, baita Fondoaren eragiketei eta finantza-emaitzei ere. Fidagarritasunez aurresan ezin diren etorkizuneko esku-hartzeen mende dago koronabirusak gure emaitzetan izango duen eragina, besteak beste, gaixotasuna kontrolatzeko eta tratatzeko ekintzen eta ukitu dituen herrialdeetako ekonomietako inpaktua arintzearren egingo diren jardueren mende.

Aurreko paragrafoan deskribatutakoaz gain, ekitaldia itxi ostean ez da gertatu Fondoaren urteko kontu hauetan eragin nabarmena izan dezakeen inolako gertaerarik.

## I. eranskina. Finantza-inbertsioen zorroa, 2019ko abenduaren 31koa (Eurotan adierazita)

| Barruko zorroa | Dibisa | Hasierako balioztapena | Interesak | Arrazoizko balioa | (Minusbalioa) / Gainbalioa |
|---|---|---|---|---|---|
| **Zor publikoa** | | | | | |
| BONUA, ESTATU ESPAINOLAREN Z. % 1,95 2030-07-30 | EUR | 1 358 250,00 | 4 508,77 | 1 438 659,88 | 80 409,88 |
| **Zor publikoa GUZTIRA** | | **1 358 250,00** | **4 508,77** | **1 438 659,88** | **80 409,88** |
| **Aktiboen aldi baterako eskurapena Gordailuzainarekin** | | | | | |
| REPOA, LABORAL KUTXA 2020-01-02 | EUR | 24 765 610,99 | - | 24 765 610,99 | - |
| REPOA, LABORAL KUTXA 2020-01-02 | EUR | 12 634 389,01 | - | 12 634 389,01 | - |
| **Aktiboen aldi baterako eskurapena Gordailuzainarekin GUZTIRA** | | **37 400 000,00** | **-** | **37 400 000,00** | **-** |
| | | | | | |
| **Barruko zorroa GUZTIRA** | | **38 758 250,00** | **4 508,77** | **38 838 659,88** | **80 409,88** |

## I. eranskina. Finantza-inbertsioen zorroa, 2019ko abenduaren 31koa (Eurotan adierazita)

| Kanpoko zorroa | Dibisa | Hasierako balioztapena | Interesak | Arrazoizko balioa | (Minusbalioa) / Gainbalioa |
|---|---|---|---|---|---|
| **Zor publikoa** | | | | | |
| BONUA, ESTATU BATUAK % 2,25 2027-02-15 | USD | 4 860 737,57 | 63 215,21 | 5 058 296,64 | 197 559,07 |
| **Zor publikoa GUZTIRA** | | **4 860 737,57** | **63 215,21** | **5 058 296,64** | **197 559,07** |
| **Zuzendaritzaren akzioak eta partaidetzak** | | | | | |
| PARTAIDETZAK, MORGAN STANLEY | EUR | 1 750 000,00 | - | 1 831 297,53 | 81 297,53 |
| PARTAIDETZAK, JPM EUR STRAT DIV | EUR | 1 763 594,59 | - | 1 837 312,85 | 73 718,26 |
| PARTAIDETZAK, UBS AG | EUR | 4 863 923,42 | - | 5 340 996,51 | 477 073,09 |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 2 765 732,87 | - | 2 894 273,20 | 128 540,33 |
| PARTAIDETZAK, PETERCAM L BUNDS EUR | EUR | 2 606 161,97 | - | 2 902 185,48 | 296 023,51 |
| PARTAIDETZAK, ARCANO CAPITAL | EUR | 3 413 911,14 | - | 3 460 911,46 | 47 000,32 |
| PARTAIDETZAK, SCHRODER ISF EUR DI | EUR | 2 311 029,00 | - | 2 265 732,83 | (45 296,17) |
| PARTAIDETZAK, JUPITER GLOBAL FUND | EUR | 5 265 523,47 | - | 5 878 467,96 | 612 944,49 |
| PARTAIDETZAK, ISHARES | EUR | 803 457,22 | - | 948 428,24 | 144 971,02 |
| PARTAIDETZAK, ABERDEEN EM INFR.Y2 | EUR | 7 986 533,33 | - | 8 637 579,14 | 651 045,81 |
| PARTAIDETZAK, DEUTSCHE | EUR | 6 000 000,00 | - | 5 983 678,29 | (16 321,71) |
| PARTAIDETZAK, ABERDEEN GLOB A2 ** | EUR | 505 638,01 | - | 536 628,37 | 30 990,36 |
| PARTAIDETZAK, HSBC EUR HYLD BON IC | EUR | 8 009 567,25 | - | 8 321 849,83 | 312 282,58 |
| PARTAIDETZAK, ETF DBX EMG MKT | EUR | 1 318 198,23 | - | 1 498 338,77 | 180 140,54 |
| PARTAIDETZAK, PIMCO CAPITAL SEC | EUR | 3 183 039,56 | - | 3 560 927,74 | 377 888,18 |
| PARTAIDETZAK, HSBC EUR HYLD BON IC | EUR | 3 560 669,01 | - | 3 739 239,08 | 178 570,07 |
| PARTAIDETZAK, PIMCO FUND EMERG M | EUR | 9 396 684,06 | - | 9 547 626,04 | 150 941,98 |
| PARTAIDETZAK, INVESCO PANEU STR EQ | EUR | 1 823 437,27 | - | 2 353 011,45 | 529 574,18 |

| Kanpoko zorroa | Dibisa | Hasierako balioztapena | Interesak | Arrazoizko balioa | (Minusbalioa) / Gainbalioa |
|---|---|---|---|---|---|
| PARTAIDETZAK, LYXOR ETF MSCI EMER | EUR | 6 902 298,15 | - | 8 531 800,99 | 1 629 502,84 |
| PARTAIDETZAK, THREADNEEDLE | EUR | 1 899 999,99 | - | 2 879 525,64 | 979 525,65 |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 7 210 398,18 | - | 7 823 964,10 | 613 565,92 |
| PARTAIDETZAK, FIDELITY FNDS EU YD | EUR | 5 625 584,14 | - | 6 874 491,59 | 1 248 907,45 |
| PARTAIDETZAK, FIDELITY FGLOB**** | EUR | 2 935 000,00 | - | 3 693 914,54 | 758 914,54 |
| PARTAIDETZAK, LYXOR ETF | EUR | 6 003 253,32 | - | 5 972 351,42 | (30 901,90) |
| PARTAIDETZAK, THREADNEEDLE EUR | EUR | 5 923 571,44 | - | 7 414 259,47 | 1 490 688,03 |
| PARTAIDETZAK, NORDEA BANK AD | EUR | 2 824 325,86 | - | 2 971 279,38 | 146 953,52 |
| PARTAIDETZAK, ISHARES MSCI AUST | EUR | 9 244 681,63 | - | 10 855 296,71 | 1 610 615,08 |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 7 599 998,93 | - | 9 366 327,87 | 1 766 328,94 |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 8 343 583,07 | - | 8 272 487,52 | (71 095,55) |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 6 447 128,40 | - | 8 284 721,72 | 1 837 593,32 |
| PARTAIDETZAK, LAZARD | EUR | 4 521 373,52 | - | 4 781 901,72 | 260 528,20 |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI ETF S&P 500 | EUR | 6 995 258,93 | - | 8 190 204,13 | 1 194 945,20 |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 1 362 919,41 | - | 1 692 870,40 | 329 950,99 |
| PARTAIDETZAK, THREADNEEDLE | EUR | 1 035 000,00 | - | 1 565 718,98 | 530 718,98 |
| PARTAIDETZAK, ISHARE CORE FTSE | EUR | 769 030,32 | - | 886 227,68 | 117 197,36 |
| PARTAIDETZAK, SCHRODER ISF EUR DI | EUR | 3 183 462,07 | - | 3 271 248,16 | 87 786,09 |
| PARTAIDETZAK, NORDEA BANK AD | EUR | 5 423 364,16 | - | 5 919 575,84 | 496 211,68 |
| PARTAIDETZAK, ISHARES | EUR | 3 636 357,06 | - | 4 354 968,51 | 718 611,45 |
| PARTAIDETZAK, BGF EMERGING MARKETS | EUR | 727 952,97 | - | 740 423,26 | 12 470,29 |
| PARTAIDETZAK, MS EMERGING | EUR | 8 435 178,76 | - | 8 593 465,80 | 158 287,04 |
| PARTAIDETZAK, ISHARES | EUR | 5 943 146,06 | - | 7 419 211,18 | 1 476 065,12 |
| **Zuzendaritzaren akzioak eta partaidetzak GUZTIRA** | | **180 319 966,77** | **-** | **201 894 721,38** | **21 574 754,61** |
| | | | | | |
| **Kanpoko zorroa GUZTIRA** | | **185 180 704,34** | **63 215,21** | **206 953 018,02** | **21 772 313,68** |

## II. eranskina. Deribatuetako inbertsioen zorroa, 2019ko abenduaren 31koa (Eurotan adierazita)

| Azalpena | Dibisa | Nominal konprometitua | Arrazoizko balioa | Kontratuaren muga-eguna |
|---|---|---|---|---|
| **Erositako gerokoak** | | | | |
| GEROKOA, B.US2611 % 1 2020-02-28 | USD | 2 428 686,60 | 2 404 260,93 | 28/02/2020 |
| **Erositako gerokoak GUZTIRA** | | **2 428 686,60** | **2 404 260,93** | |
| **«Put» aukeren jaulkipena** | | | | |
| AUKERA, EURO STOXX 50 % 10 2020-12-18 | EUR | 27 420 000,00 | 591 358,00 | 18/12/2020 |
| AUKERA, EURO STOXX 50 % 10 2020-06-19 | EUR | 7 272 000,00 | 246 642,00 | 19/06/2020 |
| **«Put» aukeren jaulkipena GUZTIRA** | | **34 692 000,00** | **838 000,00** | |
| **Beste erosketa-konpromiso batzuk** | | | | |
| PARTAIDETZAK, SCHRODER ISF EUR DI | EUR | 289 178,34 | 3 271 248,16 | - |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 2 894 273,20 | 2 894 273,20 | - |
| PARTAIDETZAK, PETERCAM L BUNDS EUR | EUR | 2 902 185,48 | 2 902 185,48 | - |
| PARTAIDETZAK, ARCANO CAPITAL | EUR | 3 460 911,46 | 3 460 911,46 | - |
| PARTAIDETZAK, SCHRODER ISF EUR DI | EUR | 2 265 732,83 | 2 265 732,83 | - |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 7 823 964,10 | 7 823 964,10 | - |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 8 284 721,72 | 8 284 721,72 | - |
| PARTAIDETZAK, LYXOR ETF | EUR | 5 972 351,42 | 5 972 351,42 | - |
| PARTAIDETZAK, NORDEA BANK AD | EUR | 71 310,71 | 2 971 279,38 | - |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 9 366 327,87 | 9 366 327,87 | - |
| PARTAIDETZAK, JPM EUR STRAT DIV | EUR | 1 837 312,85 | 1 837 312,85 | - |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI ETF S&P 500 | EUR | 8 190 204,13 | 8 190 204,13 | - |
| PARTAIDETZAK, LYXOR ETF MSCI EMER | EUR | 8 531 800,99 | 8 531 800,99 | - |
| PARTAIDETZAK, NORDEA BANK AD | EUR | 962 523,03 | 5 919 575,84 | - |
| PARTAIDETZAK, BGF EMERGING MARKETS | EUR | 1 480,85 | 740 423,26 | - |
| PARTAIDETZAK, DEUTSCHE | EUR | 13 762,46 | 5 983 678,29 | - |
| PARTAIDETZAK, HSBC EUR HYLD BON IC | EUR | 5 825 294,88 | 8 321 849,83 | - |
| PARTAIDETZAK, ETF DBX EMG MKT | EUR | 1 498 338,77 | 1 498 338,77 | - |
| PARTAIDETZAK, PIMCO CAPITAL SEC | EUR | 566 187,51 | 3 560 927,74 | - |
| PARTAIDETZAK, HSBC EUR HYLD BON IC | EUR | 373 923,91 | 3 739 239,08 | - |
| PARTAIDETZAK, PIMCO FUND EMERG M | EUR | 353 262,16 | 9 547 626,04 | - |
| PARTAIDETZAK, INVESCO PANEU STR EQ | EUR | 2 353 011,45 | 2 353 011,45 | - |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 8 272 487,52 | 8 272 487,52 | - |
| **Beste erosketa-konpromiso batzuk GUZTIRA** | | **82 110 547,64** | **117 709 471,41** | |
| **Saldutako gerokoak** | | | | |
| GEROKOA, B.US2405 % 1 2020-02-28 | USD | 10 089 038,96 | 10 045 369,62 | 28/02/2020 |
| GEROKOA, B.DBR2902 % 1 2020-03-06 | EUR | 9 477 050,00 | 9 376 950,00 | 06/03/2020 |
| **Saldutako gerokoak GUZTIRA** | | **19 566 088,96** | **19 422 319,62** | |
| **«Call» aukeren jaulkipena** | | | | |
| **GUZTIRA** | | **138 797 323,20** | **140 374 051,96** | |

## III. eranskina. Finantza-inbertsioen zorroa, 2018ko abenduaren 31koa (Eurotan adierazita)

| Barruko zorroa | Dibisa | Hasierako balioztapena | Interesak | Arrazoizko balioa | (Minusbalioa) / Gainbalioa |
|---|---|---|---|---|---|
| **Aktiboen aldi baterako eskurapena Gordailuzainarekin** | | | | | |
| REPOA, LABORAL KUTXA 2019-01-02 | EUR | 18 500 000,00 | - | 18 500 000,00 | - |
| **Aktiboen aldi baterako eskurapena Gordailuzainarekin GUZTIRA** | | **18 500 000,00** | **-** | **18 500 000,00** | **-** |
| Barruko zorroa **GUZTIRA** | | **18 500 000,00** | **-** | **18 500 000,00** | **-** |

## III. eranskina. Finantza-inbertsioen zorroa, 2018ko abenduaren 31koa (Eurotan adierazita)

| Kanpoko zorroa | Dibisa | Hasierako balioztapena | Interesak | Arrazoizko balioa | (Minusbalioa) / Gainbalioa |
|---|---|---|---|---|---|
| **Zor publikoa** | | | | | |
| BONUA, ITALIAKO ERREPUBLIKA % 2,00 2028-02-01 | EUR | 5 161 035,00 | 62 259,09 | 5 249 205,69 | 88 170,69 |
| BONUA, ESTATU BATUAK % 2,25 2027-02-15 | USD | 4 860 737,57 | 52 836,25 | 4 688 834,28 | (171 903,29) |
| **Zor publikoa GUZTIRA** | | **10 021 772,57** | **115 095,34** | **9 938 039,97** | **(83 732,60)** |
| **Zuzendaritzaren akzioak eta partaidetzak** | | | | | |
| PARTAIDETZAK, ISHARES | EUR | 3 310 376,42 | - | 3 146 020,42 | (164 356,00) |
| PARTAIDETZAK, FRANKL IND F ACC | EUR | 693 245,74 | - | 690 756,53 | (2 489,21) |
| PARTAIDETZAK, SCHRODER ISF EUR DI | EUR | 802 445,64 | - | 747 518,00 | (54 927,64) |
| PARTAIDETZAK, NORDEA BANK AD | EUR | 6 890 000,00 | - | 6 629 237,38 | (260 762,62) |
| PARTAIDETZAK, ISHARES | EUR | 3 945 304,17 | - | 3 786 384,58 | (158 919,59) |
| PARTAIDETZAK, LY ETF JP-NIKKEI 400 | EUR | 7 383 067,55 | - | 6 812 887,22 | (570 180,33) |
| PARTAIDETZAK, M&G EUROP STRAT | EUR | 5 117 750,08 | - | 4 971 974,69 | (145 775,39) |
| PARTAIDETZAK, DEUTSCHE | EUR | 6 000 000,00 | - | 5 924 778,23 | (75 221,77) |
| PARTAIDETZAK, LYXOR ETF MSCI EMER | EUR | 7 706 852,40 | - | 8 018 830,16 | 311 977,76 |
| PARTAIDETZAK, THREADNEEDLE | EUR | 1 035 000,00 | - | 1 045 826,36 | 10 826,36 |
| PARTAIDETZAK, INVESCO PANEU STR EQ | EUR | 1 823 437,27 | - | 1 809 898,75 | (13 538,52) |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 5 284 002,53 | - | 5 132 086,50 | (151 916,03) |
| PARTAIDETZAK, ABERDEEN EM INFR.Y2 | EUR | 4 652 506,06 | - | 4 679 263,99 | 26 757,93 |
| PARTAIDETZAK, DEUTSCHE BANK | EUR | 647 171,29 | - | 574 657,72 | (72 513,57) |
| PARTAIDETZAK, MORGAN STANLEY | EUR | 1 750 000,00 | - | 1 752 803,34 | 2 803,34 |
| PARTAIDETZAK, LYXOR UCITS ETF iBOX | EUR | 3 550 775,32 | - | 3 461 979,50 | (88 795,82) |
| PARTAIDETZAK, ABERDEEN GLOB A2 ** | EUR | 505 638,01 | - | 489 724,53 | (15 913,48) |
| PARTAIDETZAK, HSBC EUR HYLD BON IC | EUR | 4 909 092,28 | - | 4 659 735,09 | (249 357,19) |
| PARTAIDETZAK, ETF DBX EMG MKT | EUR | 1 318 198,23 | - | 1 230 390,32 | (87 807,91) |
| PARTAIDETZAK, PIMCO CAPITAL SEC | EUR | 5 600 000,00 | - | 5 494 704,11 | (105 295,89) |
| PARTAIDETZAK, THREADNEEDLE | EUR | 1 899 999,99 | - | 1 832 051,28 | (67 948,71) |

| Kanpoko zorroa | Dibisa | Hasierako balioztapena | Interesak | Arrazoizko balioa | (Minusbalioa) / Gainbalioa |
|---|---|---|---|---|---|
| PARTAIDETZAK, PIMCO CAPITAL SEC | EUR | 739 550,58 | - | 749 643,01 | 10 092,43 |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 8 343 583,07 | - | 8 109 000,34 | (234 582,73) |
| PARTAIDETZAK, ISHARES | EUR | 2 941 143,78 | - | 3 003 110,30 | 61 966,52 |
| PARTAIDETZAK, ISHARES | EUR | 2 921 984,04 | - | 3 003 294,61 | 81 310,57 |
| PARTAIDETZAK, ISHARES | EUR | 4 429 155,34 | - | 4 549 252,83 | 120 097,49 |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 5 101 920,60 | - | 5 241 319,96 | 139 399,36 |
| PARTAIDETZAK, FIDELITY FGLOB**** | EUR | 2 935 000,00 | - | 3 003 702,13 | 68 702,13 |
| PARTAIDETZAK, LYXOR ETF | EUR | 6 003 253,32 | - | 5 854 451,10 | (148 802,22) |
| PARTAIDETZAK, THREADNEEDLE EUR | EUR | 5 499 999,98 | - | 5 206 792,12 | (293 207,86) |
| PARTAIDETZAK, NORDEA BANK AD | EUR | 4 840 000,00 | - | 4 833 100,49 | (6 899,51) |
| PARTAIDETZAK, ISHARE CORE FTSE | EUR | 457 774,57 | - | 468 596,16 | 10 821,59 |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 7 599 998,93 | - | 7 860 620,85 | 260 621,92 |
| PARTAIDETZAK, THREADNEEDLE | EUR | 705 209,46 | - | 692 891,78 | (12 317,68) |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI ETF S&P 500 | EUR | 8 833 521,14 | - | 8 165 470,56 | (668 050,58) |
| PARTAIDETZAK, LAZARD | EUR | 9 124 999,31 | - | 8 833 112,73 | (291 886,58) |
| PARTAIDETZAK, FIDELITY FNDS EU YD | EUR | 5 200 000,00 | - | 5 322 571,41 | 122 571,41 |
| PARTAIDETZAK, BNY MELLON GLOBAL DY | EUR | 624 458,63 | - | 616 261,77 | (8 196,86) |
| PARTAIDETZAK, LYXOR UCITS ETF ES50 | EUR | 4 228 705,12 | - | 3 716 097,99 | (512 607,13) |
| PARTAIDETZAK, ISHARES EURO STOXX50 | EUR | 1 229 973,10 | - | 1 077 300,18 | (152 672,92) |
| PARTAIDETZAK, HSBC EUR HYLD BON IC | EUR | 1 806 658,15 | - | 1 829 453,09 | 22 794,94 |
| PARTAIDETZAK, ISHARES | EUR | 8 035 437,28 | - | 7 511 358,35 | (524 078,93) |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 7 635 617,53 | - | 7 442 537,68 | (193 079,85) |
| PARTAIDETZAK, ISHARES MSCI AUST | EUR | 7 930 269,14 | - | 7 703 472,43 | (226 796,71) |
| **Zuzendaritzaren akzioak eta partaidetzak GUZTIRA** | | **181 993 076,05** | **-** | **177 684 920,57** | **(4 308 155,48)** |
| | | | | | |
| **Kanpoko zorroa GUZTIRA** | | **192 014 848,62** | **115 095,34** | **187 622 960,54** | **(4 391 888,08)** |

# IV. eranskina. Deribatuetako inbertsioen zorroa, 2018ko abenduaren 31koa (Eurotan adierazita)

| Azalpena | Dibisa | Nominal konprometitua | Arrazoizko balioa | Kontratuaren muga-eguna |
|---|---|---|---|---|
| **Erositako geriokoak** | | | | |
| GEROKOA, B.US2509 % 1 2019-02-28 | USD | 2 183 151,06 | 2 236 278,78 | 28/02/2019 |
| **Erositako gerokoak GUZTIRA** | | **2 183 151,06** | **2 236 278,78** | |
| **«Put» aukeren jaulkipena** | | | | |
| AUKERA, EURO STOXX 50 % 10 2019-03-15 | EUR | 3 347 500,00 | 300 657,00 | 15/03/2019 |
| AUKERA, EURO STOXX 50 % 10 2019-03-15 | EUR | 4 480 000,00 | 350 700,00 | 15/03/2019 |
| AUKERA, EURO STOXX 50 % 10 2019-12-20 | EUR | 24 557 500,00 | 1 481 487,00 | 20/12/2019 |
| AUKERA, EURO STOXX 50 % 10 2019-06-21 | EUR | 4 422 500,00 | 346 985,00 | 21/06/2019 |
| **«Put» aukeren jaulkipena GUZTIRA** | | **36 807 500,00** | **2 479 829,00** | |
| **Beste erosketa-konpromiso batzuk** | | | | |
| PARTAIDETZAK, LAZARD | EUR | 4 416 556,37 | 8 833 112,73 | - |
| PARTAIDETZAK, ISHARES | EUR | 3 003 294,61 | 3 003 294,61 | - |
| PARTAIDETZAK, ISHARES | EUR | 4 549 252,83 | 4 549 252,83 | - |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 5 241 319,96 | 5 241 319,96 | - |
| PARTAIDETZAK, FIDELITY FNDS EU YD | EUR | 5 322 571,41 | 5 322 571,41 | - |
| PARTAIDETZAK, FIDELITY FGLOB**** | EUR | 3 003 702,13 | 3 003 702,13 | - |
| PARTAIDETZAK, THREADNEEDLE | EUR | 692 891,78 | 692 891,78 | - |
| PARTAIDETZAK, LYXOR ETF | EUR | 5 854 451,10 | 5 854 451,10 | - |
| PARTAIDETZAK, THREADNEEDLE EUR | EUR | 5 206 792,12 | 5 206 792,12 | - |
| PARTAIDETZAK, NORDEA BANK AD | EUR | 4 833 100,49 | 4 833 100,49 | - |
| PARTAIDETZAK, ISHARES MSCI AUST | EUR | 7 703 472,43 | 7 703 472,43 | - |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 7 860 620,85 | 7 860 620,85 | - |
| PARTAIDETZAK, ISHARES | EUR | 3 003 110,30 | 3 003 110,30 | - |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI ETF S&P 500 | EUR | 8 165 470,56 | 8 165 470,56 | - |
| PARTAIDETZAK, LYXOR ETF MSCI EMER | EUR | 8 018 830,16 | 8 018 830,16 | - |
| PARTAIDETZAK, BNY MELLON GLOBAL DY | EUR | 80 114,03 | 616 261,77 | - |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 5 132 086,50 | 5 132 086,50 | - |
| PARTAIDETZAK, SCHRODER ISF EUR DI | EUR | 119 602,88 | 747 518,00 | - |
| PARTAIDETZAK, M&G EUROP STRAT | EUR | 89 495,54 | 4 971 974,69 | - |
| PARTAIDETZAK, DEUTSCHE | EUR | 13 626,99 | 5 924 778,23 | - |
| PARTAIDETZAK, PIMCO CAPITAL SEC | EUR | 462 754,63 | 749 643,01 | - |
| PARTAIDETZAK, MORGAN STANLEY | EUR | 15 775,23 | 1 752 803,34 | - |
| PARTAIDETZAK, LYXOR UCITS ETF iBOX | EUR | 3 461 979,50 | 3 461 979,50 | - |
| PARTAIDETZAK, ETF DBX EMG MKT | EUR | 1 230 390,32 | 1 230 390,32 | - |
| PARTAIDETZAK, PIMCO CAPITAL SEC | EUR | 1 126 963,81 | 5 494 704,11 | - |
| PARTAIDETZAK, INVESCO PANEU STR EQ | EUR | 1 809 898,75 | 1 809 898,75 | - |
| PARTAIDETZAK, AMUNDI | EUR | 8 109 000,34 | 8 109 000,34 | - |
| **Beste erosketa-konpromiso batzuk GUZTIRA** | | **98 527 125,62** | **121 293 032,02** | |
| **Saldutako gerokoak** | | | | |
| GEROKOA, B.US2305 % 1 2019-02-28 | USD | 7 482 763,13 | 7 607 130,39 | 28/02/2019 |
| GEROKOA, B.DBR2802 % 1 2019-03-07 | EUR | 14 473 180,00 | 14 555 060,00 | 07/03/2019 |
| **Saldutako gerokoak GUZTIRA** | | **21 955 943,13** | **22 162 190,39** | |
| **«Call» aukeren jaulkipena** | | | | |
| **GUZTIRA** | | **159 473 719,81** | **148 171 330,19** | |

Caja Laboral Gestion SGIIC SAren administratzaileak 2020ko apirilaren 22an bildu dira, eta, indarrean dagoen legedia betez, Laboral Kutxa Selek Plus Inbertsio Fondoaren urteko kontuak eta kudeaketa-txostena (2019ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldikoak) egin dituzte. Kontu eta txosten horietan, idazki honen aurreko dokumentuak sartzen dira, alegia, honako hauek:

a) 2019ko abenduaren 31ko balantzea, galdu-irabazien kontua eta 2019ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiko ondare garbiaren aldaketen egoera-orria.

b) Urteko kontuen txostena, 2019ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa.

c) Kudeaketa-txostena, 2019ko ekitaldikoa.

**SINATZAILEAK:**

44971239Y JOSE CARLOS MAZA (R: F20040804)
Firmado digitalmente por 44971239Y JOSE CARLOS MAZA (R: F20040804)
Fecha: 2020.04.22 10:01:13 +02'00'

D. José Carlos Maza
Lehendakaria

Dª. Maria Carmen Urrutia
Kidea

D. Beñat Herce Leceta
Kidea

22748686F AITOR GARCIA (R: A20433421)
Firmado digitalmente por 22748686F AITOR GARCIA (R: A20433421)
Fecha: 2020.04.22 12:29:48 +02'00'

D. Aitor García
Idazkaria

## DILIGENCIA

Que extiende el Secretario (Consejero) del Consejo de Administración de Caja Laboral Gestión, Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva, S.A. (Sociedad Unipersonal). para hacer constar que:

- Las Cuentas Anuales de Laboral Kutxa Selek Plus, F.I., correspondientes al ejercicio 2019, y el Informe de Gestión del ejercicio 2019, con vistas a su verificación por los auditores y posterior aprobación por la Junta General de Accionistas, han quedado debidamente formuladas mediante acuerdo adoptado, por unanimidad, en la reunión del Consejo de Administración de Caja Laboral Gestión, Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva, S.A. (Sociedad Unipersonal) celebrada mediante videoconferencia (de conformidad con la posibilidad prevista en el apartado 1 del artículo 40 del Real Decreto-ley 8/2020, de 17 de marzo) en fecha 22 de Abril de 2020; y que,

- En atención a las actuales circunstancias de extraordinaria excepcionalidad, las Cuentas Anuales de Laboral Kutxa Selek Plus, F.I., correspondientes al ejercicio 2019, y el Informe de Gestión del ejercicio 2019 han sido firmadas, únicamente, por el Presidente del Consejo de Administración de Caja Laboral Gestión, Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva, S.A. (Sociedad Unipersonal), Don José Carlos Maza Guzmán y el Secretario (Consejero) Don Aitor García Santamaría, en señal de la aceptación y conformidad del resto de Consejeros respecto a las referidas Cuentas Anuales, quienes, a su vez, han consentido el citado procedimiento de firma y han votado en dicho Consejo de Administración celebrado en fecha 22 de Abril de 2020 a favor de la formulación de las cuentas y el informe de gestión del ejercicio cerrado a 31 de diciembre de 2019.

Mondragón, 22 de abril de 2020

22748686F AITOR GARCIA (R: A20433421)

Firmado digitalmente por 22748686F AITOR GARCIA (R: A20433421)
Fecha: 2020.04.22 10:42:32 +02'00'

**D. Aitor García Santamaría**

**Secretario (Consejero)**

**Caja Laboral Gestión, Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva, S.A. (Sociedad Unipersonal)**

LABORAL kutxa